

LANDA- ETA NEKAZARITZA-EREMUKO EMAKUMEEI BURUZKO
LEGE-AURREPROIEKTUAREN ARAU-ERAGINAREN AZTERKETARI BURUZKO MEMORIA

Memoria hau Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan ezarritakoaren arabera egiten da. Artikulu horren arabera, espedientearen izapidetzea egiteko eskumena duen zuzendaritza-organoak nahitaez prestatu behar du arau-eraginaren azterketari buruzko memoria, hasierako aginduan jasotako alderdi garrantzitsuak bildu edo berrituko dituen eta, nolanahi ere, lege horretan aurreikusitako edukiak jasoko dituen.

Memoriak hasierako aginduan jasotako edukia eguneratu eta osatzen du, izapidetzean sortutako datuak, txostenak eta ekarpenak kontuan hartuta. Horrenbestez, dokumentu honen xedea ez da soilik arauaren edukia azaltzea, baizik eta araua egiteko beharra, haren egokitasuna, ordenamendu juridikoan izango duen eragina eta haren aplikazioaren ondorio nagusiak modu sistematikoan arrazoitzea.

a) Proposamenaren egokitasuna eta aztertutako erregulazio-aukerak

Arau-ekimen honen helburua da landa- eta nekazaritza-eremuko emakumeen aitortza, berdintasun erreal eta eraginkorra, ahalduntzea eta ordezkaritza indartzea, bai eta eremu horietan oraindik dirauten egiturazko desberdintasunei erantzutea ere. Erregulazio berriaren beharra justifikatzen da 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legea, Nekazarien Emakumeen Estatutuari buruzkoa, onartu zenetik igaro den denboragatik eta oraindik ere arrakala nabarmenak daudelako emakumeen aitortza profesionalean, ustiategien titulartasuna eta titularkidetasuna eskuratzean, erabaki-guneetan duten presentzian, landa-eremuan irauteko baldintzetan eta haien lanaren balorazio sozial eta ekonomikoan. Horregatik, arau berririk ez onartzeko aukeraren aurrean, egokia da indarreko esparrua eguneratu eta zabaltzea, gaur egungo errealitate sozial, ekonomiko eta instituzionalera egokitutako lege-testu baten bidez, berdintasun-ikuspegia zeharka txertatuz eta emakumeen ikusgarritasuna indartuz landa- eta nekazaritza-eremuan.

Arau berria, gainera, berdintasunaren euskal esparruaren sektore-egokitzapenerako tresna gisa eratzen da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin eta

genero-ikuspegia politika eta jarduketa publiko guztietan txertatzeko aginduarekin bat etorritik. Ildo horretan, Emakunderen txostenak positiboki baloratzen du lege-aurreproiektuak oinarri hartzea tratu- eta aukera-berdintasunaren, genero-zeharkakotasunaren, ekintza positiboaren, ordezkaritza orekatuaren, ahalduntzearen, interseksionalitatearen, botere publikoen lankidetzaren eta koordinazioaren eta gizonen inplikazioaren printzipioak, eta horiek berariaz proiektatzea nekazaritza- eta landa-garapenerako politika publikoetan.

b) Edukia eta azterketa juridikoa

b.1) Edukiaren azterketa

Lege-aurreproiektuak landa- eta nekazaritza-eremuko emakumeen estatutu juridikoa eguneratu eta zabaldu nahi du, ikuspegi integral batetik. Testuak, besteak beste, xedapen orokorrak, printzipio gidariak, definizioak, aplikazio-eremua, botere publikoen betebeharrak, emakumeen eskubide profesional, sozial eta ekonomikoak, titulartasuna eta titulartasun partekatua sustatzeko neurriak, ordezkaritza eta parte-hartzea, prestakuntza, ahalduntzea, kontziliazio erantzunkidea, laneko osasuna eta segurtasuna genero-ikuspegiarekin, indarkeria matxistaren eta jazarpenaren aurkako babesa, emakumeen lana ikusaraztea, azterlanak, estatistikak, informazio-sistemak eta erregistroak, bai eta jarraipen, ebaluazio, gobernantza eta koordinazio instituzionaleko mekanismoak ere arautzen ditu.

Hasierako tituluek legearen xedea, printzipioak, definizioak eta aplikazio-eremua zehazten dituzte, landa- eta nekazaritza-eremuko emakumeen errealitate anitza kontuan hartuta eta diskriminazio anizkoitzaren egoerak berariaz aintzat hartuta.

Hurrengo tituluek ustiatzearen titulartasunean eta titulartasun partekatuan emakumeen presentzia sustatzeko neurriak jasotzen dituzte, bai eta emakumeek sektorean lan-, gizarte- eta zerga-eskubideak benetan baliatu ahal izateko tresnak ere.

Era berean, testuak emakumeen ordezkaritza eta parte-hartze sozial, profesional eta instituzional orekatua sustatzen du, sektoreko erakundeetan eta erabakiak hartzeko guneetan emakumeen presentzia handitzeko neurriak aurreikusiz.

Prestakuntzari, ahalduentzari, aholkularitzari eta berdintasunaren arloko gaitasunak sendotzeari buruzko neurriak ere jasotzen dira, emakumeek sektorean duten autonomia ekonomikoa eta lidergoa indartzeko.

Halaber, kontziliazio erantzunkidea, osasuna, indarkeria matxistaren eta sexu-jazarpenaren aurkako babesa, eta emakumeen lana aitortzeko eta ikusarazteko neurriak jasotzen dira.

Azkenik, lege-aurreproiektuak azterlanak, estatistikak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak aurreikusten ditu, politikek benetako eragina izan dezaten eta emakumeen egoeraren bilakaera modu objektiboan neurtu ahal izan dadin.

Emakundek egindako oharrekin koherentziaz, edukiaren azterketak bereziki nabarmendu behar ditu zirriborroak jasotzen dituen hainbat aurreikuspen: lehentasun-neurriak aldian-aldian berrikustea, emakumeen benetako egoerara egokitzen direla egiaztatzeko; sexuaren arabera bereizitako datuak eta, hala badagokio, diskriminazio anizkoitz edo interseksionaleko egoerak identifikatzeko aldagaiak txertatzeko betebeharra; hitzarmen eta lankidetzatresnetan berdintasun-klausulak sartzea; zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia orekatua duten erakundeek laguntzak eskuratzeko baldintzak ezartzea; eta genero-ikuspegia azterlanetan, ikerketetan, prestakuntzan, lan-arriskuen prebentzioan eta neurrien jarraipenean integratzeko betebeharra.

Legeak, gainera, aurreko arau-esparruaren jarraipena eta egokitzapena bermatzeko gobernantza- eta koordinazio-mekanismoak arautzen ditu, administrazioen, sektorearen eta emakumeen elkarleen parte-hartzea bultzatuz.

Aurreproiektuak, hala badagokio, aurreko arauaren indargabetze espresua eta hura ordeztzen duen lege berriaren indarrean sartzea aurreikusten ditu, ordenamendu juridikoan koherentzia eta segurtasun juridikoa bermatzeko.

Artikuluen, xedapen gehigarrien, xedapen iragankorren, indargabetze-xedapenen eta azken xedapenen behin betiko konfigurazioa lege-aurreproiektuaren zirriborroaren eduki zehatzera eta izapidetzean hartzen diren arau-teknikako erabakietara egokituko da.

Testuaren egiturak arau-teknikaren irizpideei erantzuten die: tituluak arauaren xedea eta aurreikusten den indargabetzea islatzen ditu; azalpen-zatiak arauaren helburua, aukera-arrazoiak eta oinarri juridikoak jasotzen ditu; eta xedapen-zatiak gaiak modu

ordenatuan banatzen ditu, artikulua, kapitulu eta azken xedapenen bidez. Nolanahi ere, artikuluen luzera eta edukien banaketa arauaren argitasunaren, koherentziaren eta aplikagarritasunaren mesedetan baloratu behar dira, arau-teknikako jarraibideak testuaren ulergarritasunaren eta segurtasun juridikoaren zerbitzura jarrita.

b.2) Izaera juridikoa

Aztertutako testua xedapen orokor gisa konfiguratutako lege-aurreproiektu bat da, ordenamendu juridikoa berritzen duena eta landa- eta nekazaritza-eremuko emakumeen estatutu juridikoa eguneratzeko eta sendotzeko xedea duena.

Arau-ekimen hau bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun- eta nekazaritza-politikaren esparru juridikoarekin, bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin, urriaren 15eko 8/2015 Legearekin eta Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearekin.

c) Eskumenen banaketarekiko egokitasunaren azterketa

Lege-aurreproiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoak nekazaritzaren, landa-garapenaren, arrantzaren, basoen eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloetan dituen eskumenen esparruan kokatzen da, Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.8, 10.9, 10.10 eta 9.2 artikuluetan jasotakoarekin bat etorriz.

Barne-eskumenei dagokienez, arau-ekimena Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen araudiaren eta berdintasunaren arloko eskumenen banaketaren barruan txertatzen da.

Lurralde historikoekiko eskumen-ikuspegiari dagokionez, arauak ez du foru-organoei berariaz eta esklusiboki esleitutako eskumen-eremu bat arautzen; aitzitik, erakunde komunek duten araugintza-ahalaren esparruan kokatzen da, betiere foru-aldundiek nekazaritza- eta landa-politiken garapenean izan dezaketen parte-hartzea eta koordinazioa errespetatuz.

d) Eragin ekonomikoa eta aurrekontukoa

Arau-proiektuaren eragin ekonomiko eta aurrekontukoa dagokion memoria ekonomikoan zehaztuko da, bai administrazio publikoentzat, bai sektoreko

eragileentzat izan ditzakeen ondorioei dagokienez. Nolanahi ere, arauak izaera programatiko eta arautzailea du nagusiki, eta aurreikusitako neurri askoren eragina etorkizuneko deialdi, programa, lankidetzatresna edo garapen-xedapenen bidez gauzatuko da; horietan zehaztu beharko dira, hala badagokio, behar diren baliabideak eta finantzaketa-aurreikuspenak.

d.1) Aurrekontu-eraginaren azterketa

Aurrekontu-ondorioak memoria ekonomikoan zehaztuko dira, aurreikusitako neurriak ezartzeko behar diren baliabideak eta finantzaketa-iturrien egokitasuna baloratuz.

d.2) Ekonomian duen eraginaren azterketa

Ekonomian duen eragina ere memoria ekonomikoan aztertuko da, bereziki emakumeen jarduera profesionalaren aitortzan, enpleguan, ustategien iraunkortasunean eta landa-garapenaren dinamizazioan izan dezakeen eragina kontuan hartuta.

e) Administrazio-kargen eta betetze-kostuaren ebaluazioa

Arau-aurreproiektuak ez du, printzipioz, beharrezkoa ez den administrazio-karga berririk ezarri nahi; aitzitik, helburua da emakumeek eskubide eta baliabideetara duten sarbidea erraztea eta lehendik dauden tresnak hobeto egokitzea. Aurreikus daitezkeen izapide edo betebeharrak, hala nola datuak biltzea, jarraipen-adierazleak ezartzea edo berdintasun-klausulak sartzea, arauaren helburuekin lotuta daude eta proportzionaltasun-, eraginkortasun- eta administrazio-simplifikazioaren irizpideen arabera garatu beharko dira, bereziki sektoreko elkarte, ustategi eta enpresa txiki eta ertainetan alferrikako zama gehigarririk ez sortzeko.

f) Genero-ikuspegiko eraginaren txostena

Genero-ikuspegiko eragina funtsezkoa da arau-ekimen honetan, haren helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra sustatzea baita landa- eta nekazaritza-eremuan. Emakundek emandako txostenaren arabera, lege-aurreproiektuak eragin positiboa izango du ikusgarritasunaren, aitortza profesionalaren, nekazaritza-jarduerari lotutako eskubideetarako sarbidearen, erabaki-organoetan parte-hartzearen eta landa-eremuan irautearen arloko desberdintasunak murrizteko. Arauak berariaz hartzen du abiapuntutzat egiturazko desberdintasunek bere horretan dirautela, eta emakumeek ustategien erregistro-titulartasuna, ekoizpen-baliabideak, laguntza publikoak eta

ordezkaritza-guneak eskuratzeko dituzten oztopoak kentzera bideratutako neurriak artikulatzen ditu.

Ebaluazioak jaso behar du lege-aurreproiektuak berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak txertatzen dituela: lehentasuna laguntzetan, dirulaguntzetan eta sustapen-neurrietan; ustiategien titulartasuna eta titularkidetasuna bultzatzea; presentzia orekatua zuzendaritza-, kontsulta- eta erabaki-organoetan, epaimahaietan eta balorazio-batzordeetan; berdintasunari, erantzunkidetasunari eta jazarpenaren prebentzioari buruzko prestakuntza espezifikoa, sektoreko gizonei ere zuzendua; genero-ikuspegia azterlan eta ikerketetan txertatzea; hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea; kontziliazio erantzunkiderako eta ordezkapenerako neurriak; indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen babesa; eta lan-arriskuen prebentzioa genero-ikuspegiarekin garatzeko jarduketak.

Era berean, Emakunderen gomendioarekin bat etorriz, parte-hartze edo presentzia orekatuari buruzko aipamen guztietan komeni da, hala dagokionean, Berdintasunerako Legearen 3.10 artikuluan aurreikusitako ehunekoen erreferentzia espresua jasotzea. Artikulu horren arabera, lau kide baino gehiagoko organoetan ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkaritza dutenean, eta gainerako kasuetan, bi sexuek ordezkaritza dutenean. Zehaztaper horrek testuaren segurtasun juridikoa indartzen du eta aplikazio homogeneoa errazten du.

Genero-txostenak berariaz baloratu behar ditu, halaber, itxuraz neutroak izan arren berdintasunean eragin positiboa izan dezaketen neurriak, hala nola kontziliazio-eskubidea benetan baliatzeko ordezkapen-zerbitzuak, hileko mingarriak, haurdunaldia, erditzea, erditze-ostea, edoskitzea, zaintza-beharrak eta guraso bakarreko familiak lehentasunez artatzeko aurreikuspenak, urteko jarraipen-adierazleak eta sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa sistematikoa. Neurri horiek arauaren eraginkortasuna hobetzen dute eta haren aplikazioa egiaztagarriak diren emaitzetara bideratzen dute.

Testuaren eta espedienteko dokumentazioaren idazketa, gainera, hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeko agindura eta berdintasun-ikuspegia araugintza-jarduera osoan zeharka txertatzeko betebeharrera egokitzen saiatzen da.

g) Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko txostena

Lege-aurreproiektu honek eragin esanguratsua du euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik, izan ere, bere ondorioak jarduketa publikoaren eremu batean —nekazaritza- eta landa-eremuan— hedatzen dira, eta eremu horretan Administrazioaren, sektoreko eragileen eta herritarren arteko harremanak hizkuntza-berdintasun eraginkorreko baldintzetan garatu ahal izan behar dira.

Arauak ez du berariazko xedetzat hizkuntza-araubidea erregulatzea, eta ez du, oro har, hizkuntza-betebehar autonomo berririk ezartzen. Hala ere, haren edukia zuzenean eragin dezake euskararen erabileraren normalizazioan, aurreikusten baititu nekazaritza- eta landa-eremuko emakumeei zuzendutako jarduketa publikoak, programak, laguntza-neurriak, prestakuntza-ekintzak, aholkularitza-tresnak, parte-hartze bideak, azterlanak, estatistikak eta ikusgarritasun-ekintzak. Esku-hartze publikoko gune horietan guztietan, hizkuntza-ikuspegia txertatzea beharrezkoa da hizkuntza-aukeraren eskubidea, euskarazko eta gaztelaniazko edukien irisgarritasuna eta bi hizkuntza ofizialen berdintasun-printzipioaren eraginkortasuna bermatzeko.

Ikuspegi horretatik, araua prestatzean, garatzean eta aplikatzean bermatu beharko da lege-aurreproiektu honi lotutako botere publikoen jarduna bat datorrela hizkuntza-normalizazioaren arloko indarreko araudiarekin, eta, bereziki, honako printzipio hauekin: hizkuntza ofizialkidetasuna, hizkuntzagatik ez diskriminatzea, hizkuntza-eskuragarritasuna, kalitate juridikoa eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen arteko baliokidetasun substantiboa. Horrek eskatzen du, alde batetik, arau-testuaren bi hizkuntza-berbetsioen zuzentasun formala bermatzea, eta, bestetik, euskarazko terminologia juridiko eta sektorial zehatza, homogeneoa eta funtzionala erabiltzea, testuaren argitasunari edo segurtasun juridikoari kalte egin diezaioketen itzulpen literalegiak saihestuz.

Era berean, arauak euskararen erabileraren normalizazioan izan dezakeen eragina agerian geratzen da, jarduera ekonomikoa, komunitate-bizitza, belaunaldien arteko transmisioa eta zerbitzu publikoen prestazioa elkartzen diren sektore eta inguruneetan euskararen presentzia indartzeko duen gaitasunean. Horrenbestez, komenigarria litzateke lege honetatik eratorritako neurriak gauzatzean euskararen erabilera sustatzea dokumentazioan, hedapen-ekintzetan, prestakuntza-materialetan, hartzailentzako arretan eta aholkularitzan, bai eta arauaren babespean antolatzen diren parte-hartze, koordinazio eta erakundearen arteko lankidetzatresnetan ere.

Azken batean, ondoriozta daiteke lege-aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ikuspegia duela, haren diseinuak eta etorkizuneko aplikazioak bi hizkuntza ofizialen presentzia eraginkorra bermatzen lagundu behar baitute garrantzi sozial eta lurralde-mailako berezitasuna duen sektore-eremu batean, eta, horrela, arauaren hartzaile diren emakumeek Administrazioarekin harremanak izan eta aurreikusitako eskubide, neurri eta baliabideak beren aukerako hizkuntza ofizialean eskuratu ahal izan ditzaten.

h) Hautzaro eta nerabezaroaren gaineko eraginaren ebaluazioa

Ez da aurreikusten arauak hautzaroan edo nerabezaroan eragin zuzen eta esanguratsurik izatea; hala ere, arauak belaunaldi-ikuspegia, landa-eremuaren iraunkortasuna eta berdintasunaren kultura susta ditzake zeharka.

i) Egiteko prozedura eta egindako izapideak

Lege-aurreproiektu bat denez, haren izapidetzea bat etorri behar da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoarekin. Bereziki, prozedurak honako izapide hauek hartzen ditu barne: herritarrei egin beharreko aurretiazko kontsulta publikoa, 11. artikuluan arautua; hasierako agindua, 13. artikuluan aurreikusia; testuaren aurretiazko onespena eta izapidetze-espedientearen osaketa, 15. artikuluekin bat etorritik; entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera; beste administrazio publiko batzuekiko partaidetza eta kontsulta, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta nahitaezko funtsezko txosten eta irizpenen eskaera, lege horren 19. artikuluan eta, hala badagokio, 20.etik 23.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Izapidetzean, nahitaezko txostenak eta, hala badagokio, txosten fakultatiboak eskatu beharko dira, arauaren edukiarekin lotutako arloei erreparatuta: berdintasuna, hizkuntza-normalizazioa, ekonomia-kontrola, legezkotasun-kontrola, gobernu irekia eta administrazio elektronikoa, datu-babesa edo ukitutako beste sektore-arlo batzuk. Era berean, espedientean jaso beharko dira egindako kontsulten eta entzunaldiaren emaitzak, jasotako ekarpenen laburpena eta testuan izan duten isla edo, hala badagokio, ez onartzeko arrazoiak.

Aurretiazko kontsulta 2026ko otsailaren 24an egin zen, eta hasierako agindua urte bereko maiatzaren 27koa da.

j) Gazteriaren gaineko eraginaren ebaluazioa

Ekimenak ez du, oro har, gazteriaren eremuan berariazko eragin bereizirik. Hala ere, komeni da kontuan hartzea nekazaritza- eta landa-eremuko belaunaldi-erreleboan izan dezakeen eragina, bereziki emakume gazteak nekazaritza- eta landa-eremuetan sartzeari, bertan irauteari eta finkatzeari dagokionez. Ikuspegi horretatik, lege-aurreproiektuak zeharkako eragin positiboa izan dezake, baldin eta emakumeen aitortza juridikoa, profesionala eta soziala hobetzen laguntzen badu, haien ikusgarritasuna indartzen badu, ustiatzearen titulartasuna eta titulartasun partekatua sustatzen baditu, prestakuntzarako, aholkularitzarako, parte-hartzerako eta baliabide publikoetarako sarbidea errazten badu, eta lurraldean emakumeen eta gazteen presentzia finkatzeko baldintza egokiagoak sortzen baditu.

Horrenbestez, gazteriaren gaineko eraginaren ebaluazioak genero-ikuspegidun belaunaldi-erreleboaren berariazko azterketa jaso behar du, eta, bereziki, arauak emakume gazteek jarduerara eta ustiatzearen titulartasunera iristeko duten aukeran, enplegu- eta ekintzailtza-aukeren gainean, kontziliazioan, sektoreko organo eta erakundeetan parte hartzeko aukeran eta nekazaritza- eta landa-eremuan jarraitzea zailtzen duten egiturazko faktoreak murriztean izan dezakeen eragina aztertu behar du. Horretarako, komenigarria izango da etorkizuneko arauaren jarraipenak eta ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera bereizitako adierazleak jasotzea, emakume gazteak sektorean sartzean eta bertan irautean duten heinean arauak duen benetako eragina eta belaunaldi-erreleboari egiten dion ekarpena neurtu ahal izateko.

k) Irisgarritasunaren azterketa

Ez da aurreikusten lege-aurreproiektuak, berez, irisgarritasunaren arloan berariazko eragin bereizirik izatea. Hala ere, hura idaztean, garatzean eta aplikatzean ahalik eta irisgarritasun handiena bermatu beharko da, bai testuaren ulergarritasunaren ikuspegitik, bai etorkizuneko legearen babespean, hala badagokio, antolatzen diren jarduketan, baliabideen, zerbitzuen, prozeduren eta materialen irisgarritasun unibertsalaren ikuspegitik ere. Ildo horretan, komenigarria izango da formulazio argia eta ulerterraza sustatzea, informazioa iristeko alferrikako oztopoak saihestea eta aurreikusitako neurriak ezartzean hartzaileen beharrak kontuan hartzea, bereziki desgaitasun-egoeran, kalteberatasun-egoeran edo sarbideari lotutako zailtasun bereziak dituzten pertsonenak.

l) Beste eragin garrantzitsu batzuen ebaluazioa

Beste eragin garrantzitsuei dagokienez, arauak eragin sozial positiboa izan dezake, emakumeen aitortza, parte-hartzea eta bizi-baldintzak hobetuz eta landa-eremuaren kohesioa eta iraunkortasuna indartuz. Halaber, ingurumen-ikuspegia eta lurralde-oreka kontuan hartuko dira, hala badagokio dagokion txosten sektoriala eskatuz.

m) Ex post ebaluazioa

Arauaren eraginkortasuna eta benetako eragina ebaluatzeko, ex post jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak aurreikusi beharko dira, gutxienez adierazle hauetan oinarrituta: ustiatgien titulartasuna eta titularkidetasuna; laguntzetarako eta ekoizpen-baliabideetarako sarbidea; zuzendaritza- eta erabaki-organoetan parte-hartzea; enplegua eta sustapen profesionala; prestakuntza; kontziliazio erantzunkidea; lan-osasuna; indarkeria matxistaren prebentzioa; eta emakumeen ordezkartza landa- eta nekazaritza-eremuan. Adierazle horiek sexuaren arabera bereizitako datuak jaso beharko dituzte eta, egokia denean, adinaren eta diskriminazio anizkoitz edo interseksionaleko egoerak identifikatzeko aukera ematen duten beste aldagai batzuen arabera ere bereiziko dira.

Lege-aurreproiektuan aurreikusitako Jarraipen Batzordea tresna nagusia izango da legearen aplikazio-maila eta berdintasunaren ikuspegitik dituen emaitzak aldian-aldian baloratzeko. Bereziki, urteko txosten bat egin beharko du, aurrerapenak, oztopoak, estali gabeko beharrak eta hobekuntza-proposamenak identifikatzeko; horrela, ekintza positiboko, lehentasunezko, prestakuntzako, kontziliazioko eta parte-hartzeko neurriak berrikusi eta nekazaritza- eta landa-sektoreetako emakumeen benetako egoerara egokitu ahal izango dira.

Ebaluazio horren sistematika argia izan beharko da: lehenik, arauaren helburu nagusiak eta horiei lotutako adierazleak identifikatuko dira; bigarrenik, datuen bilketa-iturriak eta arduradunak zehaztuko dira; hirugarrenik, emaitzen aldizkako azterketa egingo da; eta, azkenik, ondorioek, hala badagokio, neurriak egokitze, araua garatzeko edo kudeaketa-tresnak hobetzeko proposamenak ekarriko dituzte.

Aholkularitza Juridikoa.

MEMORIA DE ANÁLISIS DE IMPACTO NORMATIVO DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE LAS MUJERES DEL ÁMBITO AGRARIO Y RURAL

La presente memoria se emite en virtud del artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. De conformidad con dicho precepto, el centro directivo competente para la instrucción del expediente debe elaborar con carácter preceptivo una memoria de análisis de impacto normativo que recoja o actualice los extremos relevantes del expediente y contenga, en todo caso, los apartados legalmente exigibles.

La memoria actualiza y completa el contenido de la orden de inicio a la vista de los datos, informes y aportaciones que se incorporen durante la tramitación. En consecuencia, su finalidad no se limita a describir el contenido de la norma, sino que consiste en razonar de forma sistemática la necesidad de la regulación, su oportunidad, su incidencia en el ordenamiento jurídico y las principales consecuencias previsibles de su aplicación.

a) Oportunidad de la propuesta y alternativas de regulación estudiadas, lo que deberá incluir una justificación de la necesidad de la nueva norma frente a la alternativa de no aprobar ninguna regulación.

La iniciativa normativa tiene por objeto reforzar el reconocimiento, la igualdad real y efectiva, el empoderamiento y la representación de las mujeres del ámbito agrario y rural, así como dar respuesta a las desigualdades estructurales que persisten en dichos ámbitos. La necesidad de una nueva regulación se justifica por el tiempo transcurrido desde la aprobación de la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, y por la constatación de que subsisten brechas relevantes en el reconocimiento profesional de las mujeres, en el acceso a la titularidad y cotitularidad de las explotaciones, en su presencia en los espacios de decisión, en las condiciones para permanecer en el medio rural y en la valoración social y económica de su trabajo. Por ello, frente a la alternativa de no aprobar una nueva regulación, resulta procedente actualizar y ampliar el marco vigente mediante un texto legal adaptado a la realidad social, económica e institucional actual, que integre de forma transversal la perspectiva de igualdad y refuerce la visibilidad de las mujeres en el ámbito agrario y rural.

La nueva norma se configura, además, como una herramienta de adecuación sectorial del marco vasco de igualdad, en coherencia con el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de

marzo, y con el mandato de incorporar la perspectiva de género en todas las políticas y actuaciones públicas. En este sentido, el informe de Emakunde valora positivamente que el anteproyecto tome como base los principios de igualdad de trato y oportunidades, transversalidad de género, acción positiva, representación equilibrada, empoderamiento, interseccionalidad, colaboración y coordinación de los poderes públicos e implicación de los hombres, y que los proyecte específicamente sobre las políticas agrarias y de desarrollo rural.

b) Contenido y análisis jurídico

b.1) Análisis de contenido

El anteproyecto de ley pretende actualizar y ampliar el estatuto jurídico de las mujeres del ámbito agrario y rural desde una perspectiva integral. El texto regula, entre otras materias, las disposiciones generales, los principios rectores, las definiciones, el ámbito de aplicación, las obligaciones de los poderes públicos, los derechos profesionales, sociales y económicos de las mujeres, las medidas de promoción de la titularidad y de la titularidad compartida, la representación y participación, la formación, el empoderamiento, la conciliación corresponsable, la protección de la salud y seguridad en el trabajo con perspectiva de género, la protección frente a la violencia machista y el acoso, la visibilización del trabajo de las mujeres, los estudios, estadísticas, sistemas de información y registros, así como los mecanismos de seguimiento, evaluación, gobernanza y coordinación institucional.

Los títulos iniciales definen el objeto de la ley, sus principios, las definiciones básicas y el ámbito de aplicación, atendiendo a la diversidad de realidades de las mujeres del ámbito agrario y rural y contemplando expresamente las situaciones de discriminación múltiple.

Los títulos siguientes incorporan medidas dirigidas a promover la presencia de las mujeres en la titularidad y cotitularidad de las explotaciones, así como instrumentos para garantizar el ejercicio efectivo de sus derechos laborales, sociales y fiscales en el sector.

Asimismo, el texto promueve una representación y participación social, profesional e institucional equilibrada de las mujeres, previendo medidas para incrementar su presencia en las organizaciones del sector y en los espacios de decisión.

También se prevén medidas en materia de formación, empoderamiento, asesoramiento y fortalecimiento de capacidades en igualdad, orientadas a consolidar la autonomía económica y el liderazgo de las mujeres en el sector.

Del mismo modo, el anteproyecto incorpora medidas relativas a la conciliación corresponsable, la salud, la protección frente a la violencia machista y el acoso sexista, y el reconocimiento y la visibilización del trabajo de las mujeres.

Finalmente, el anteproyecto prevé estudios, estadísticas y mecanismos de seguimiento, evaluación, gobernanza y coordinación institucional para asegurar la eficacia de las políticas públicas y la participación de las administraciones, del sector y de las asociaciones de mujeres.

La ley regula, además, mecanismos de gobernanza y coordinación para garantizar la continuidad y adaptación del marco normativo anterior, promoviendo la participación de las administraciones, del sector y de las asociaciones de mujeres.

En coherencia con las observaciones formuladas por Emakunde, el análisis del contenido debe destacar especialmente varias previsiones del borrador: la revisión periódica de las medidas de prioridad para comprobar su adecuación a la situación real de las mujeres; la exigencia de incorporar datos desagregados por sexo y, cuando proceda, variables que permitan identificar situaciones de discriminación múltiple o interseccional; la inclusión de cláusulas de igualdad en convenios e instrumentos de colaboración; la previsión de ayudas condicionadas a la presencia equilibrada de mujeres en órganos de dirección; y la obligación de integrar la perspectiva de género en estudios, investigaciones, formación, prevención de riesgos laborales y seguimiento de las medidas.

El anteproyecto podrá incluir, en su caso, la derogación expresa de la normativa anterior que resulte sustituida y la determinación de la entrada en vigor del nuevo texto, con el fin de garantizar la coherencia y la seguridad jurídica del ordenamiento.

La estructura del texto responde a criterios de técnica normativa: el título identifica el objeto de la norma y la derogación prevista; la parte expositiva recoge la finalidad, los motivos de oportunidad y los fundamentos jurídicos; y la parte dispositiva distribuye las materias de forma ordenada mediante capítulos, artículos y disposiciones finales. En todo caso, la extensión de los artículos y la distribución de contenidos deben valorarse al servicio de la claridad, la coherencia interna y la aplicabilidad de la norma, de modo que las directrices de técnica normativa operen como instrumento para reforzar la comprensión y la seguridad jurídica del texto.

La configuración definitiva del articulado, de las disposiciones adicionales, transitorias, derogatorias y finales, se adecuará al contenido concreto del borrador del anteproyecto y a las decisiones de técnica normativa que se adopten durante su tramitación.

b.2) Naturaleza jurídica

El texto examinado tiene naturaleza de anteproyecto de ley configurado como disposición de carácter general, en la medida en que innova el ordenamiento jurídico y persigue actualizar y reforzar el estatuto jurídico de las mujeres del ámbito agrario y rural.

La iniciativa normativa es coherente con el marco jurídico vasco en materia de igualdad y política agraria, en particular con el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, con la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, y con la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria.

c) Análisis sobre la adecuación de la norma propuesta al orden de distribución de competencias

El anteproyecto de ley se sitúa en el marco de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de agricultura, desarrollo rural, pesca, montes e igualdad de mujeres y hombres, de acuerdo con la Constitución y con los artículos 10.8, 10.9, 10.10 y 9.2 del Estatuto de Autonomía.

En el plano competencial interno, la iniciativa se integra en el ámbito de atribuciones del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, sin perjuicio de la necesaria coordinación con los órganos competentes en materia de igualdad y con las restantes administraciones públicas afectadas.

Desde la perspectiva de la relación con los territorios históricos, la norma no regula una materia atribuida de forma específica y exclusiva a los órganos forales, sino que se sitúa en el ámbito de la potestad normativa de las instituciones comunes, sin perjuicio de la participación y coordinación que corresponda a las diputaciones forales en el desarrollo de las políticas agrarias y rurales.

d) Impacto económico y presupuestario

El impacto económico y presupuestario de la iniciativa se concretará en la correspondiente memoria económica, tanto desde la perspectiva de las administraciones públicas como de los agentes sociales y económicos afectados. En todo caso, la norma presenta una dimensión principalmente programática y reguladora, de modo que buena parte de sus efectos se materializarán a través de futuras convocatorias, programas, instrumentos de colaboración o disposiciones de desarrollo, en los que deberán precisarse, cuando proceda, los recursos necesarios y las previsiones de financiación.

d.1) Análisis de impacto presupuestario

Los efectos presupuestarios se concretarán en la memoria económica, valorando los recursos necesarios para la implantación de las medidas previstas y la adecuación de las fuentes de financiación.

d.2) Análisis de la incidencia en la economía

La incidencia en la economía se examinará igualmente en la memoria económica, en particular en lo que respecta al reconocimiento de la actividad profesional de las mujeres, al empleo, a la sostenibilidad de las explotaciones y a la dinamización del ámbito rural.

e) Evaluación de cargas administrativas y coste de cumplimiento

El anteproyecto no persigue introducir nuevas cargas administrativas innecesarias, sino facilitar el acceso de las mujeres a los derechos, recursos e instrumentos ya existentes y mejorar su adecuación a la realidad del ámbito agrario y rural. Los trámites o deberes

que puedan derivarse de la norma, como la recogida de datos, el establecimiento de indicadores de seguimiento o la incorporación de cláusulas de igualdad, deberán desarrollarse con arreglo a criterios de proporcionalidad, eficacia y simplificación administrativa, evitando generar cargas añadidas injustificadas para asociaciones, explotaciones y pequeñas y medianas empresas del sector.

f) Informe sobre el impacto en función del género

El impacto en función del género resulta central en esta iniciativa normativa, dado que su finalidad principal es promover la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en el ámbito agrario y rural. Conforme al informe emitido por Emakunde, el anteproyecto presenta una incidencia positiva en la reducción de las desigualdades existentes en materia de visibilidad, reconocimiento profesional, acceso a los derechos vinculados a la actividad agraria, participación en órganos de decisión y permanencia en el medio rural. La norma parte expresamente de la persistencia de desigualdades estructurales y articula medidas orientadas a remover los obstáculos que dificultan el acceso de las mujeres a la titularidad registral de las explotaciones, a los recursos productivos, a las ayudas públicas y a los espacios de representación.

La redacción del texto y de la documentación del expediente intenta adecuarse, además, al mandato de uso no sexista e inclusivo del lenguaje y a la integración transversal de la perspectiva de igualdad en toda la actuación normativa.

La evaluación debe dejar constancia de que el anteproyecto incorpora medidas específicas para promover la igualdad: prioridad en ayudas, subvenciones y medidas de fomento; impulso de la titularidad y cotitularidad de explotaciones; presencia equilibrada en órganos de dirección, consulta, decisión, jurados y comisiones de valoración; formación específica en igualdad, corresponsabilidad y prevención del acoso dirigida también a los hombres del sector; incorporación de la perspectiva de género en estudios e investigaciones; inclusión de cláusulas de igualdad en convenios; medidas de conciliación corresponsable y sustitución; protección de las mujeres víctimas de violencia machista; y acciones de prevención de riesgos laborales con perspectiva de género.

Asimismo, de acuerdo con la recomendación de Emakunde, en todas las menciones a la participación o presencia equilibrada resulta conveniente incorporar, cuando proceda,

la referencia expresa a los porcentajes previstos en el artículo 3.10 de la Ley Vasca de Igualdad, según el cual existe representación equilibrada en los órganos de más de cuatro miembros cuando las personas de cada sexo cuentan con una representación mínima del cuarenta por ciento y, en los demás casos, cuando ambos sexos están representados. Esta precisión refuerza la seguridad jurídica del texto y facilita su aplicación homogénea.

El informe de género debe valorar también de forma específica las medidas aparentemente neutras que pueden producir un impacto positivo en la igualdad, como los servicios de sustitución para hacer efectivo el derecho a la conciliación, la atención preferente a situaciones de menstruaciones dolorosas, embarazo, parto, posparto, lactancia, cuidados y monoparentalidad, la previsión de indicadores anuales de seguimiento y la recogida sistemática de datos desagregados por sexo. Estas medidas permiten mejorar la eficacia de la norma y orientar su aplicación a resultados verificables.

g) Informe que analice la perspectiva de normalización del uso del euskera

El anteproyecto de ley presenta una incidencia relevante desde la perspectiva de la normalización del uso del euskera, en la medida en que proyecta sus efectos sobre un ámbito de actuación pública —el agrario y rural— en el que las relaciones entre la Administración, los agentes sectoriales y la ciudadanía deben poder desarrollarse en condiciones de igualdad lingüística efectiva.

La norma no tiene por objeto específico la regulación del régimen lingüístico ni introduce, con carácter general, nuevas obligaciones lingüísticas autónomas. No obstante, su contenido puede incidir de manera directa en la normalización del uso del euskera en la medida en que prevé actuaciones públicas, programas, medidas de apoyo, acciones formativas, instrumentos de asesoramiento, cauces de participación, estudios, estadísticas y actuaciones de visibilización dirigidas a las mujeres del ámbito agrario y rural.

En todos esos espacios de intervención pública, la incorporación de la perspectiva lingüística resulta necesaria para garantizar el derecho de opción lingüística, la accesibilidad de los contenidos en euskera y castellano, y la efectividad del principio de igualdad de ambas lenguas oficiales.

Desde esta perspectiva, durante la elaboración, desarrollo y aplicación de la norma deberá asegurarse que la actuación de los poderes públicos vinculada a este anteproyecto se adecue a la normativa vigente en materia de normalización lingüística y, en particular, a los principios de cooficialidad, no discriminación por razón de lengua, disponibilidad lingüística, calidad jurídica y equivalencia sustantiva entre las versiones en euskera y castellano. Ello exige no solo la corrección formal de ambas versiones lingüísticas del texto normativo, sino también la utilización de una terminología jurídica y sectorial precisa, homogénea y funcional en euskera, evitando soluciones meramente literales que puedan afectar a la claridad o a la seguridad jurídica del texto.

Asimismo, la incidencia de la norma en la normalización del uso del euskera se aprecia en su potencial para reforzar la presencia del euskera en sectores y entornos en los que confluyen la actividad económica, la vida comunitaria, la transmisión intergeneracional y la prestación de servicios públicos. En consecuencia, sería conveniente que, en la ejecución de las medidas que deriven de la ley, se promueva la utilización del euskera en la documentación, en las acciones de difusión, en los materiales formativos, en la atención y asesoramiento a las personas destinatarias, así como en los instrumentos de participación, coordinación y colaboración institucional que se articulen al amparo de la norma.

En definitiva, puede concluirse que el anteproyecto mantiene una perspectiva favorable a la normalización del uso del euskera, en la medida en que su diseño y futura aplicación deberán contribuir a garantizar la presencia efectiva de ambas lenguas oficiales en un ámbito sectorial de especial relevancia social y territorial, asegurando que las mujeres destinatarias de la norma puedan relacionarse con la Administración y acceder a los derechos, medidas y recursos previstos en la lengua oficial de su elección.

h) Evaluación de impacto sobre la infancia y la adolescencia

No se prevé que la norma produzca un impacto directo y significativo sobre la infancia y la adolescencia. No obstante, la ley puede contribuir indirectamente a reforzar una cultura de igualdad, sostenibilidad y continuidad generacional en el ámbito rural.

i) Procedimiento de elaboración y trámites evacuados

Al tratarse de un anteproyecto de ley, su tramitación debe ajustarse a lo previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En particular, el procedimiento comprende la consulta pública previa a la ciudadanía, regulada en el artículo 11; la orden de inicio, prevista en el artículo 13; la aprobación previa del texto y la conformación del expediente de tramitación, conforme al artículo 15; el trámite de audiencia e información pública, de acuerdo con el artículo 17; la participación y consulta a otras administraciones, en los términos del artículo 18; y la solicitud de los informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial previstos en el artículo 19 y, en su caso, en los artículos 20 a 23 de la citada ley.

Durante la tramitación deberán solicitarse los informes preceptivos y, en su caso, los informes facultativos que resulten pertinentes en atención al contenido de la norma, especialmente en materia de igualdad, normalización lingüística, control económico, legalidad, gobierno abierto y administración electrónica, protección de datos u otros ámbitos sectoriales afectados. Asimismo, el expediente deberá reflejar el resultado de las consultas y trámites de audiencia, el resumen de las aportaciones recibidas y su incorporación al texto o, en su caso, las razones de su no aceptación.

La consulta previa se llevó a cabo con fecha de 24 de febrero de 2026 y la orden de inicio con fecha de 27 de mayo de este mismo año.

j) Evaluación de impacto sobre la juventud

La iniciativa no presenta un impacto específico diferenciado en el ámbito de la juventud en términos generales. No obstante, sí resulta pertinente tomar en consideración su posible incidencia sobre el relevo generacional en el ámbito agrario y rural, especialmente en lo que respecta a la incorporación, permanencia y consolidación de mujeres jóvenes en los ámbitos agrario y rural.

Desde esta perspectiva, el anteproyecto puede producir un efecto positivo indirecto en la medida en que contribuya a mejorar el reconocimiento jurídico, profesional y social de las mujeres, a reforzar su visibilidad, a promover la titularidad y cotitularidad de las explotaciones, a favorecer el acceso a la formación, al asesoramiento, a la participación

y a los recursos públicos, y a generar condiciones más favorables para fijar población femenina y joven en el territorio.

En consecuencia, la evaluación del impacto sobre la juventud debe incorporar una consideración específica del relevo generacional con enfoque de género, analizando, en particular, la incidencia potencial de la norma en el acceso de las mujeres jóvenes a la actividad y a la titularidad de las explotaciones, en sus oportunidades de empleo y emprendimiento, en la conciliación, en la participación en órganos y organizaciones del sector y en la reducción de los factores estructurales que dificultan su continuidad en el ámbito agrario y rural. A estos efectos, resultará conveniente que el seguimiento y la evaluación de la futura norma incorporen indicadores desagregados por sexo y edad que permitan medir su incidencia real sobre la incorporación y permanencia de mujeres jóvenes en el sector y sobre su contribución al relevo generacional.

k) Análisis de la accesibilidad

No se prevé que el anteproyecto produzca, por sí mismo, un impacto específico diferenciado en materia de accesibilidad. No obstante, en su redacción, desarrollo y aplicación deberá procurarse la máxima accesibilidad posible, tanto desde la perspectiva de la comprensión del texto como desde la accesibilidad universal de las actuaciones, recursos, servicios, procedimientos y materiales que, en su caso, se articulen al amparo de la futura ley. En este sentido, resultará conveniente favorecer una formulación clara y comprensible, evitar barreras innecesarias de acceso a la información y tener en cuenta, en la implementación de las medidas previstas, las necesidades de las personas destinatarias, incluidas aquellas que puedan encontrarse en situaciones de discapacidad, vulnerabilidad o especiales dificultades de acceso.

l) Evaluación de otros impactos que pudieran ser relevantes

En cuanto a otros impactos relevantes, la norma puede producir un efecto social positivo al mejorar el reconocimiento, la participación y las condiciones de vida de las mujeres, así como al reforzar la cohesión y la sostenibilidad del ámbito rural. Del mismo modo, se tomarán en consideración la perspectiva ambiental y el equilibrio territorial, solicitándose, en su caso, los informes sectoriales que correspondan.

m) Evaluación *ex post*

Para evaluar la eficacia y el impacto real de la norma deberán preverse mecanismos de seguimiento y evaluación *ex post*, apoyados en indicadores relativos, al menos, a la titularidad y cotitularidad de explotaciones, acceso a ayudas y recursos productivos, participación en órganos de dirección y decisión, empleo y promoción profesional, formación, conciliación corresponsable, salud laboral, prevención de la violencia machista y representación de las mujeres en el ámbito agrario y rural. Estos indicadores deberán incorporar datos desagregados por sexo y, cuando resulte pertinente, por edad y otras variables que permitan identificar situaciones de discriminación múltiple o interseccional.

La Comisión de Seguimiento prevista en el anteproyecto constituye el instrumento principal para valorar periódicamente el grado de aplicación de la ley y sus resultados desde la perspectiva de la igualdad. En particular, deberá elaborar un informe anual que permita identificar avances, obstáculos, necesidades no cubiertas y propuestas de mejora, de modo que las medidas de acción positiva, prioridad, formación, conciliación y participación puedan revisarse y adaptarse a la situación real de las mujeres de los sectores agrario y rural.

La sistemática de dicha evaluación deberá ser clara: en primer lugar, se identificarán los objetivos principales de la norma y los indicadores vinculados a ellos; en segundo lugar, se determinarán las fuentes de información y los órganos responsables de la recopilación de datos; en tercer lugar, se realizará un análisis periódico de resultados; y, finalmente, las conclusiones podrán dar lugar, en su caso, a propuestas de adaptación de las medidas, desarrollo normativo o mejora de los instrumentos de gestión.

Asesoría Jurídica.